

GURE LAGUNAK

Gizakiak asmakizun aundi bat egin eban abereak etxeratu ebazanean eta zorionez abereak beti izaten dira etxeko lagun onak. Euren-tzat gaurko idazki apal au.

Begiratu bei-taldea muño orlegiaren gainean, adar luzeak, tente, lasai eta baketsu. Euren urre-orizko estalkia agur egiten dagoan eguzkiak larrosa-kolore biurtzen dau.

An urriñean dagoz uro-antzeko abereak, ez dira onak esnetarako, errape-legorrek dira, eta ez dira onak lanerako be, buzta-rrari gorrotoa dautsoe. Baiña onuragarri ditu baserritarrek urtean txal bat dakarrela-ko.

Apur bat beerago, astotxua doa bide zidorretik draka-draka. Jasan aundiko aberea, bete-betea zamatuta, artaldearen atzetik bideak egiten udaldiko barruti ugarien billa. Latza da astoaren bizitza! Baiña adiskide da alboan doan txakurragaz edo artzain-mutillagaz edo ugazabagaz.

Arratsaldea da eta erritik dator aste osorako artzainaren janaria-kaz eta euritarako aterki urdin aundiagaz.

Zlaldiak, astoak eta mandoak, laguntzaille onak doguz. Idi bikoten buztartuak lan asko egin dabe gure edestian laiaria erabilten naiz gurdikadak etxera ekar-ten. Afrikan eta beste toki batzutan beste itxura batek abereak dabez lagun, konkoriak, esaterako

Basamortuko ontzia esaten dautsegu ganbe-lu konkori bikoai naiz konkori bateko dromedarioai. Oneik



Txakurra, gure laguna.

barik gizonak ezin igaro al izango leukez karabanetan igaroten dauzan basamortuak. Iraupenez eta jateko naiz edateko eraz arrigarria da abere au. Egunbatztan bizi leiteke urik edan bari eta bedar barik illebete osoa. Begi aundiak eta gozoak daukaz, baiña motza ta traketsa da, baiña laguntza aundia emoten dauku. Eta beragandik dator Afrika'ko ibiltarien aberastasun osoa.

Munduan diran pizti guztiakaz parekatu ezkeror, etxe-abereak gitxi dira, baiña jateko, jantziteko eta ibilteko bear dogu beste daukaguz

Aspaldiko 7000 urte oneitan lagun dogu gure etxeetan txakurra. Berba egiten ez daki baiña ia beste guztia bai. Bere b arrua ausika eta alaurika agertzen dauku.

Nondik dator txakurra? Otsoa edo txakala edo basa-uxakurra ei dai jatorri.

300'dik gora dira ezagutzen doguzan txakur-motak

Antxiña erregeakaz ibiltzen ziran eizan, oreiñak eta basjurdeak eizatzeko, gaur txakurra azeri-eizarako da ona, eper-txakurrak be ba-dagoz, galgoak eizarako onak, eta orduko 59 km. ko abiadea artu leike.

Otso-txakurra da laguntzaillerik onena eta argiena, zaindaria,, mezularia, itsuen gidaria,, Bere lengusua dan otsoaren antza dauka.